

# Euskal nazionalismo motak –nazioaren ikuskeraren arabera–

**Julen Zabalo**

Nazionalismo kontzeptuak islatzen duen zabaltasunak, hura ulertarazten laguntzeko era askotako tipologiak eraikitzen eraman du. Artikulu honetan gutxi landu eta errazegi erabiltzen den nazioaren ikuskerari buruzkoa garatzen da. Horretarako, urrats teoriko batzuk ezartzen dira: nazioaren lurralde eta pertsona ikuspuntuak eta, ondoren, definizio politiko eta etniko-kultural deiturikoak. Hemendik, euskal nazionalismoak nazioa eraikitzeke erabiltzen dituen ardatzak erazten dira: arraza, hizkuntza, lurraldea eta, aurrerantzean agian, pertsona. Sei nazionalismo mota aurkezten dira horrela, eta hausnarketa orokor batzuk eginaz amaitzen da.

The concept is so broad that it has given rise to different approaches which may help us in our understanding of it. This article deals with one which so far has elicited little study and which has generally been taken lightly, that referring to our conception of nation. To this end, theoretical steps are laid down: personal points of view or those related to territory, and, furthermore, the so-called political or ethnic-cultural definitions. Hence the keystones on which the different types of nation created by Basque nationalism are based: race, language, territory and, perhaps henceforth, the person. We thus present six types of nationalism and conclude with general reflections.

Nazionalismoaren moduko kontzeptu zabalekin topo egiten dugunean, barne banaketak eraikitzea jotzen da, kontzeptua hobeto atzeman ahal izateko asmoz. Horrela eraiki dira nazionalismoari buruzko hainbat fase diferentziario, tipologia edo banaketa, interesgune desberdinen arabera: historian zeharreko bilakaera jarraiturik, mugimendu nazionalistaren interes ekonomiko, politiko edo kulturala azterturik, zein ideologiarekin loturik ageri den (liberala, sozialista) ikusirik, helburu politikoak (independentzia, autonomia) oinarritzat hartuta, eta abar.

Artikulu honetan nazioaren ikuskeraren araberrako tipologia bat proposatzen da, hots, nazionalistek nazioa ulertzeko modua da banaketaren oinarria, eta nazioa osa dadin funtsezko elementua jotzen dena hura bihurtzen da nazionalismo horren jitearen ezaugarri nagusia, kalifikatzaile gisa erabiliko dugularik: arraza nazionalismoa, hizkuntza nazionalismoa, eta abar. Era horretara, sei nazionalismo mota desberdinduko ditut Euskal Herrian,<sup>1</sup> oso inportantzia desberdinekoak badira ere. Aurretik, dena den, tipologia hau eraikitzeke urrats teorikoak azalduko ditut laburrez.

## 1. Nazioari buruzko ikuspegi desberdinak

Esan dugunez, hemen, mugimendu nazionalistak egiten duen nazio definizioa interesatzen zaigu. Izan ere, nazionalismoak nazioa sortzen du, eta ez alderantziz, eta horrexegatik agertzen dira nazioaren ikuskera desberdinak. Nazionalistak sortutako nazioa, ordea, ondorengo banaketetarako iturri izango diren gizarte helburu nagusi biren ikuspuntutik begira daiteke. Lurralde eta pertsona ikuspuntuak dira, lehenak gizarte helburu integraziozalea duela eta bigarrena, berriz, integrazio asmorik ez duena. Nazioa definitu aurretiko urrats modura aditu behar dira, ez definizioaren zati bezala.

Integrazio helburua duen lurralde ikuspuntua da, duda barik, ohikoena, eta normalean nazioa ulertzeko ikuspuntu bakartzat ere jotzen da, beste interpretaziorik egitea ezina balitz bezala. Lurralde ikuspuntu honetan, nazio bakoitzari espazio bat dagokiola ulertu eta defenditzen da eta, ondorioz, espazio jakin bati nazio bakarra dagokiola, zeinari estatu bat osatzeko edo gutxienez espazio horretako subiranotasuna aldarrikatzeko eskubidea aitortzen baitzaio. Nazioa-espazioa identifikazio hau inportantea da hurrengo urratsean aztertu behar dugun nazioaren definizioa ondo ulertzeko, dela etniko-kulturala, dela politikoa, definizio bi hauek lurralde batetako subiranotasuna errebindikatzen dute eta.

Bestelakoa da, ostera, integrazio asmorik ez duen pertsona ikuspuntua, beronetan ez baita aipatu identifikazioa iragartzen. Bauerrek dioenez, «El principio territorial exagera [...] la trascendencia de las diferencias nacionales al querer a toda costa separar estados y regiones administrativas entre sí en función de las fronteras idiomáticas» (1979: 325). Hori dela eta, pertsona ikuspuntuan, nazio bakoitzak espazio batu edo sakabanatuak osa ditzake: eta espazio berean nazio bat edo gehiago bizi daitezke elkarrekin, bat ere liskarrik sortu gabe horregatik. Premisa honetatik abiatu, ez dio garrantzi handirik ematen nazioaren definizioari, nazioak ez baitauka estatuarekin harreman zuzenik (Bauer 1979). Berdin

---

1. Aurreko lan batean (Zabalo, 1996), hiru mota desberdindu nituen, baina ez ziren oso zehatzak eta ez zuten, orain uste dudanez, errealitatea ondo islatzen.

dio, hortaz, nazioa aurretiko baldintza batzuen ondorio izatea edo borondatean oinarritua egotea. Gizakiak nahi duen erara osa ditzake taldeak gizartean, nolabaiteko hurkotasan edo kidesunaren arabera.

Pertsona ikuspuntua deitzen dudan hau gutxi garatu da orain arte. Azterna bat Fichterengan kausi dezakegu, norentzat gizakiak libre baitzeukan komunitatea borondatez aukeratzea, baina behin hautua egin ondoren, kultura hartan integrazteko konpromisoa hartzen baitzuen. Aukera libre a zen, baina tradizio hartan hezten zen komunitateko kidea. Joera biak biltzen ziren, beraz (Renaut 1993: 59-60). Hala ere, XIX. mendearen amaierako eta XX.aren hasierako *austromarxismo* izeneko eskola dateke teorizatzailerik aipagarriena, Otto Bauer buru. Estatu multinazionalak eraten dira horrela, arazorik gabe, leialtasun nagusia Estatuarekikoa baita (Linz 1987: 113). Multzo honetan sar litezke orobat azken urteotan nazionalismoaren despolitizazioa errebindikatu dutenak eta, erlijioarekin gertatzen den bezala, pertsonaren eremu pribatura mugatu gura dutenak. Habermasek, kasu, uste du nazioak barneraturik daudela europarren sentimenduan eta eutsi egin behar zaiela, baina politikoki Konstituzioarekiko abertzaletasuna eskatzen du, nazio guztiek errespetatuko luketena (ik. Habermas 1989, 1992; Alvarez Dorransoro, 1993).

Lurralde eta pertsona ikuspuntuak batu egiten dira, ordea, nazioa definitzeko unean, bietan ager baitaiteke ondoren ikusiko dugun bidebanatze bera. Pertsona ikuspuntuak ez dio, egia esan, garrantzi handirik ematen auzi honi, gai pribatuzat jotzen du eta. Lurralde ikuspuntuan gertatzen dira, aitzitik, eztabaidarik latzenak, inplikazio politiko inportantea baitauka nazioa modu batera edo bestera definitzeak. Banaketa honi izen desberdinak ematen zaizkio eta hemen definizio etniko-kulturala eta definizio politikoa izenak emango dizkiegu. Ez da edonondik sorturiko eztabaida, bestalde, Erdi Arotik aurrera hainbatetan errepikatuko zen zuzenbide natural eta positiboaren arteko polemikaren ondorio baizik, zeinean lehenak definizio etniko-kulturalera eramango baitu Alemaniako Erromantizismoaren eskutik batez ere, eta bigarrenak definizio politikora, XVII. mendeko *kontratu sozialaren* teoretatik eta ondoko mendeko ilustrazioaren bidetik.

Gizartea arautzeko, kontratu baten bidez norberaren boterea ordezkatzeko erabakitzen duten gizakiek osatzen dute nazio politikoa. Borondatez eginiko kontratua da, bertatik etekin orokorra erdiestea itxaroten da eta. Izatez, gizaki guztiek sina lezakete kontratu bera, baina mundua egitura politiko desberdinetan zatiturik dagoenez, egitura horietako bakoitzak itun bat bultzatu du eta nazio bat osatu. Hori dela eta, kontratu batek dagokion nazioaren mugen barruan bakarrik dauka eraginik, ez harago: lurraldeak markoa jartzen du eta borondateak, aurrera egiteko erabakia. Lurraldea eta borondatea dira, hortaz, nazioaren interpretazio honen oinarria. Hobbes eta Rousseauen moduko teorilariak agertzen dira ikuskera honen funtsean eta Frantziako Iraultza da hedatzaile nagusia. Arrakasta nabaria eduki du, bestalde, oraingo nazio-estatuak zutabe teorikoa definizio honetan datza eta.<sup>2</sup> Azken zeregin honetan adibide bat aipatzekotan, Ernest Renan (1987) hauta dezakegu.<sup>3</sup>

---

2. Horregatik justifika dezakete nazio-estatuak talde nazional desberdinak biltzea beren lurraldearen barruan, estatu bezala baturik jarraitzeko –eta nazio politikoa osatzeko, hortaz– deliberamendua agertarazten baitute norbanakoek. Funtsa teorikoak ez du esan nahi, dena den, nazio-estatuak sarritan nazio kultural bezala ez duenik aurkezten bere burua, baina hori maila ideologikoari dagokio.

3. Eta Benedict Anderson (1993) oraingo intelektual eta ikertzaile askoren jarreraren lekuko gisa.

Adierazi dugunez, aurreko definizioan arazo koiunturala zen nazioen arteko banaketa, berez denak bat izan daitezke eta. Ikuskera honen ondorioetako bat laster erakutsi zen Frantziak Europa osora zabaldu nahi izan zituenean ideia berriak. Aurreikusiezineko ondorioa erreakzio politikoa eta, batez ere kasu honetarako, ideologikoa izan zen, nazioaren beste ikuskera bat finkatu baitzen, nazio etniko<sup>4</sup> edo kulturala, alegia. Alemaniako Erromantizismoari loturik (iturriak aurretik ere antzeman badaitezke ere) doan ikusmolde honetan, ukatu egiten da aurrekoan agertzen zen kontratuaren ideia. Nazioa ez da inoren erabaki edo borondatez eraikia den egitura, gizabanakoari jatorriz itsatsirik datorren berezitasuna baizik: zerbait naturala da eta ez asmatua. Berezitasun baten (hizkuntza, arraza) partaide den gizaki multzoak nazioa osatzen du eta ezaugarri hori ezin ezaba daiteke estatu desberdinetan zatiturik egon arren.<sup>5</sup> Alemania jo izan da beti definizio honen iturritzat, baina aurretik ere, Frantzian aztarnaren bat ediren daiteke; Montesquieuk, adibidez, bazerabilen *nazioaren izpiritua* kontzeptua (Herranz de Rafael 1992: 27-28) eta, beherago ikusiko dugunez, Sieyesek argiro erabiltzen ditu etnia eta historia nazioa definitzeko. Alemanian, Fichte eta Herder jotzen dira pentsalaririk aipagarrientzat eta Erromantizismoa da hedatzaile nagusia. Bere eragina nabaria izango da aurrerantzean estaturik osatzen ez duten herrialdeetan, Alemania, Italia eta Greziarekin hasi eta helburu orokorra bihurtu arte XIX. mendearen amaieran. Nazionalismoari arreta gehiegi eskaintzen ez ziotenek ere naturaltzat hartuko dute definizio hau.<sup>6</sup> Euskal Herrian, azkenik, Aranaren (1980) nazionalismoa ezaugarrituko du, baita ondorengoa ere, hurrengo puntuan ikusiko dugunez.

Honaino definizio etniko-kultural eta politikoaren ereduak, sarritan bateraezina balira bezala aurkezten direnak, eta txarragoa dena, Frantzia eta Alemaniarekin arinkiegi identifikatzen direnak (Renaut 1993: 47-48). Bien arteko interrelazioak etengabeak dira, ordea, eta aukera biotako bati garrantzi handiagoa aitortu arren, asko dira bestearen beharra ere onartzen dutenak. Horrela gertatzen da, adibidez, definizio politikoaren eredu etateko batekin, Sieyes (1989: 90 hh.), norentzat nazioa hiritarrek osatzen baitute, osatu ere, baina eragin etnikoa ukatu gabe horregatik, Hirugarren Estatuak bakarrik jotzen baitu nazioaren subjektutzat, benetan frantziarra zen galiar eta erromatarren ondorengoa, alegia; noblezia, aldiz, franko jatorria zuena, atzeritartzat jotzen du: «...todo lo que no es el Tercer Estado no puede considerarse como parte integrante de la nación» (ibid. 91). Sieyesek lurraldesunean oinarritutako definizio politikoa erabiltzen du, nazioanitza den Hirugarren Estatuako kide guztiak integratzen baititu nazioan, eskaera bakarra lurraldea delarik, baina helburu politikoz bada ere, elementu etnikoez baliatzen da bere argudioak aurrera eramateko, nazionalismoak beti egin duen bezala, zaila baita definizio bateko nazionalismo hutsik aurkitzea.<sup>7</sup> Jarrera eklektiko hau era kontzientez ere bilatzen

---

4. Egia esan, hitz errepikapena litzateke hau, zeren jatorriz, eta Krutwigek dioenez, grekerazko *ethnos* eta latinezko *natio* hitzek esangura berbera daukate, gutxi gora-behera; hau da, lokarri batzuek (hizkuntza, ohitura...) loturiko jende multzoa (Sarriailh de Ihartza 1979: XIII).

5. Definizio politikoaren kosmopolitismoarekin gertatu bezala, ezabaezineko lotura kultural eta nazional hauek inperialismoarako justifikazioa ere eskain dezakete.

6. Horrela onartzen dute Marxek eta Engelsek, adibidez, (Haupt & Weill 1982) edo, beranduago, Kautskyk (Nin 1977) marxisten artean.

7. Acostarentzat, Sieyesek definizio politiko eta kulturalaren batuketa argia egiten du eta, hortaz, Alemaniari atxikitzen zaizkion hasierako ezaugarriak Frantzian garatzen dabilen eredian ere aurki daitezkeela uste du, horrela Kedourieren teoria ezeztatuz (1992: 117-118).

da, ordea, osoagoa delakoan. Honen aitzindarietako bat Mancini (1985) dugu: nazionalitatea naturan oinarritzen da, baina borondatezko bultzada behar du gorpuzteko.<sup>8</sup> Biak batera doazena urratu behar den hurrengo pausuan ere frogatuko da.

Puntu honetan, eta aintzina joan aurretik, argipen bat egin behar da batuketa honetaz, ezen nazionalismo politikoak lurralde jakin bateko biztanleria osoari orokortzen dio naziotasuna eta, orduan, herritartasunaren pareko egiten du, baina, bestela, naziotasuna eta herritartasuna (edo hiritartasuna edo nazionalitatea) ez dira nahastu behar. Lehena nazioari dagokio eta bestea, nazioaren pareko ez denean, estatuaren administrazioari. Diferentzia ondo markatu nahi izaten da nazioa definizio etniko-kultural batetik ikusten denean, ondorio praktikoak izaten baititu. Horrela, eraikitako nazio-estatuari dagokienez, eta baltikoko estatuetan, adibidez, herritartasunaz gain, nazio jite osoa estatuko hizkuntzaz mintzatzen denari bakarrik aitortzen zaio, errusieraz soilik egiten dutenen kaltean. Eta konstituzioan islamiar legea ezarri duten estatuetan antzera gertatzen da erlijio hori jarraitzen ez dutenekin. Estaturik gabeko nazionalismoei dagokienez, berriz, gauzak korapilatuago daude, herritartasuna mugimendu nazionalistak ukatzen duen estatuak ezarria da eta. Egoera honen aurrean, batzuetan nazionalismoak ez du estatuaren baldintza hori ontzat ematen eta berriak ezarri nahi izaten ditu, baina besteetan, onartu egiten da lurraldean bizitzeari lotuta doan herritartasuna eta, osagarri gisa, baldintza berriak ezartzen dira nazio jite osoa eskuratzeko, goiko adibideekin gertatu bezala. Hortaz, maila teorikoan (praktikan interrelazio ugaria baita) nazionalismo politikoak berdindu egiten ditu herritartasuna eta naziotasuna, eta nazionalismo etniko-kulturalak desberdindu. Bigarren honetan, nazioak herritartasunak falta duen balore afektiboa dauka, zeinaren bidez taldearen konpaktazioa askoz eraginkorrago bihurtzen baita.

Zein dira, baina, nazio ezaugarri horiek? Nazioa zein ikuspuntutatik begiratzten den eta zein definizio ematen zaion azaldu ondoren, nazioa osa dadin erabiltzen diren elementu nagusiak apuntatuko ditugu, azkenik. Apuntatu besterik ez, hortik aurrera euskal nazionalismoarekin jarraituko dugu eta. Nazio etniko-kulturalen elementu esentzialista edo primordialista deiturikoak hobesten dira, berez taldeari itsatsirik doazenak, arbasoengandik edo naturatik hartuak direnak, alegia: hizkuntza, arraza, erlijioa, sorlekua eta abar. Nazio politikoan berriz, politikotzat jotzen diren elementuak hobesten dira, etorkizunari begirako kontratu baterako beharrezkoak direnak, alegia: lurraldea eta borondatea. Alta, oraintsu aipatu dugun interrelazioa edo banaketa estuezina azkar agertzen zaigu hemen, elementu edo interpretazio batzuk bietan azaltzen baitira. Historia adibide argia da. Definizio etniko-kulturalak kolektibotasun naturalaren aztarnak bilatzen ditu historian; herria badela eta beti izan dela baietsi nahi da. Eta definizio politikoak aurrera egiteko deliberamenduaren aztarnak bilatzen ditu, ostera lurralde horretako biztanleek kontratu sozial bat sinatu zutela eta batasuna osatzeko borondate hori nahikoa dela baieztatzeke.


Hala ere, maila teorikotik at, aipatu interrelazio honek egiaztapen gardena dauka nazionalismoaren praktikan eta oro har, jarrera esentzialista edo kultu-

---

8. Gaur egun, ikertzaile askok onartzen dute definizio bien batu beharra. Ikus, besteak beste, Acosta (1992), Busquets (1971), Gellner (1988), Renaut (1993), A.D. Smith (1976; 1991).

raletatik politikoetara iragateko joera nabaritzen da nazionalismoa hazi ahala (Hall 1993: 96; Linz 1985). Azken egile honek dioenez, elementu primordialak hobesten hasten den mugimenduak gaindiezineko oztopoa aurkitzen du etnikoki guztiz homogeen ez diren taldeetan, zabaldu nahi duen mezua gizartearen zati bati bakarrik heltzen baitzaio, beste zatia ez soilik aparte utzia edo baztertua, baizik eta ukatua ere baden bitartean. Baina arrakasta lortu ahala, mugimendu nazionalistak –eta gogora dezagun beti nazionalismoaren funtsezko jite politikoaherri osora zabaltzeko premia sentitzen du, are gehiago autogobernu mailaren bat eskuratu badu, eta bai hala erabaki duelako, bai gobernu erantzukizuna duelako, elementu primordialen inportantzia itzaliz, motelduz edo ilunduz doa, politikoen mesedetan (ik. Linz 1985: 204-205).

Hortaz, batzuetan, definizio bietatik elementuak hartzen dituzten nazionalismo motak ere agertuko zaizkigu. Ahaztu barik, azkenik, pertsona ikuspuntutik zetorren haria, zeinak definizio bietatik iragan ondoren, berezko bidea har baitezake berriro, nazionalismo berezi bat osatzeko, edo beste ezaugarriren batekin batzeko, mota mistoak osatuz, orduan. Laburpen gisa, 1. grafikoa<sup>9</sup> errepikatuko dugu esandako guztia, nazionalismo moten puntuan sartu gabe, sail hori Euskal Herriari egokiturik aztertuko baitugu, esan dugunez.



9. Grafikoa azalpena: 1). Nazionalismoak nazioaren eraikuntza bilatzen du, baina nazioa modu bitan uler dezake nazionalistak. 2). Lurralde ikuspuntuan, nazioa espazio batekin identifikatzen da eta espazio bakoitzean nazio bakarrak menperatu behar duela ezartzen da. Pertsona ikuspuntuan, naziotasuna gauza pribatua da, apolitikoa, eta ez du espaziorik menperatu behar. 3). Ikuspuntu biak batzen dira nazioa definitzean. Definizio nagusi bi ageri dira: etniko-kulturala eta politikoa. 4). Definizio bakoitzak ezaugarri batzuk hartzen ditu nazioaren ardatz, baina zenbaitetan elementu bera definizio biek hartzen dute eta askotan alde bietako elementuak baturik ageri dira. 5). Aurreko puntuaren ezaugarrietatik nazionalismo mota desberdinak ageri dira.

## 2. Euskal nazioari buruzko ikuspegi desberdinak

Aurreko puntuan urratutako pausu guztiak jorratuko ditugu lehenengo, baina azkarrago oraingoan eta Euskal Herrira egokiturik, eta azken pausua –tipologia– prestatzeko kontuan hartu behar diren datu eta baldintzak aztertuko dira ondoren.

Euskal Herrian, nazionalismoak integrazio helburua duen lurralde ikuspuntutik soilik begiratu izan du nazioa. Kontserbadoreek, liberalek, sozialistek edo demokrata-kristauek, denek zeukaten lurralde horretako jendeak integratzeko asmoa ikusmiran. Pertsona ikuspuntua oso gutxi landu da, berriz, eta proposamen nagusiak uzkur eta nahasiak izan dira. Horrela uler liteke *komunitateen* planteamentua, zeinaren arabera eta batzuen ustez, *euskal* eta *erdal* komunitate biek (Hego Euskal Herrikoak normalean, hain zuzen ere) bide bereziak jarraitzeko eskubidea baileukakete.<sup>10</sup> Aspaldi honetan Euskararen Aldeko Mugimenduetatik etorri edo iradoki zaizkigu halako jarrerak eta ez dira nahastu behar, noski, espainiar nazionalismoak euskal nazionalismoari kontra egiteko erreibindikatzen duen komunitateen teoriarekin, azken hau espainiar lurralde nazionalismo (integraziozalea, beraz) bati dago-kio eta. Dena den, azken urteotan pertsona ikuspunturantz jotzen duten zenbait printza agertu dira. Horietako bat Gurutz Jauregirena dateke. Bere proposamena lurralde nazionalismoan sartuko dugu beherago, baina eraiki nahi duen euskal herritartasun (*vasquismo*) berria batik bat gizarte zibilari dagokiola uste du eta ez politikoari. *Herrigintza* litzateke helburua eta ez *aberrigintza* (bere hitzetan esana), bigarren hau politikoa eta lehena sozial, ekonomiko edo kulturalagoa delarik (Jauregui 1996: 118-119). Hala ere, ez du integrazioarako borondatea galtzen eta, orduan, pertsona-lurralde nazionalismo baterantz ari dela esan genezake gehienez, bertan egon gabe. Orobat esan dezakegu Aierdiren jarreraz, eremu politikoari nagusigoa kendu eta gizarte eta kulturari ematea proposatzen duenean (1996: 208). Baina kasu hau ere lurralde nazionalismoari dagokio gehiago pertsona-lurralde honi baino. Desberdina da Sarasuaren jarrera, norentzat lurraldea ezin da izan nazioaren ardatza: bere ustez, lurraldeak definitutako proiektuetatik irten behar da eta euskarari eman behar zaio protagonismo hori (1997: 9). Azkenik, Euskadiko Ezkerra barruan saio baldar batzuk ere somatu ziren, baina hemen ere, lurralde nazionalismoarekin nahasturik. Ematen du gehiago zirela definizio etniko-kulturaletik desmarkatzeko saioak pertsona ikuspuntuari lotzeko deliberamendua baino.<sup>11</sup> Gaitza da, hortaz, pertsona ikuspuntuari buruz teorizaziorik ikustea, Euskal Herrian ez baita biztanleria osoa integratzeko, bat egiteko, itxaropena galtzen. Hori dela eta, lurralde ikuspuntuan sartu behar da eginiko guztia, edo ia guztia.

Hurrengo pausuan ere, nazio definizioari dagokionean, nagusitasun nabaria igertzen da aukera bietatik baten alde. Izan ere, euskal nazionalismoak definizio

---

10. *Nahasiak* direla diogu, *komunitate* kontzeptu tradizionalak, Weberrek eman bezala, partaideen baieztapen subjektiboa eramatea eskatu beharko bailuke, eta kasu honetan ez da horrelakorik gertatzen; komunitatea, ezaugarriren bat (hizkuntza, jatorria...) biltzen duen *talde* pasiboa da aitzitik, inolako ageriko borondaterik erakutsi barik, alegia (zehaztapen hau Txoli Mateosi zor eta eskertzen diot). Ikusten denez, eta gorago esan dugunaren arabera, komunitate barik *nazio* izena ere eman geniezaioke talde horri, Alemaniako Erromantizismotik datorkigun ikuskerari jarraituz, baina hitzak konnotazio arriskutsu eta gatazkatsuak ditu, denek uste baitute (euskal, espainiar edo frantziar) nazio bakarra dela, eta ez da erabilia izaten.

11. Euskadiko Ezkerraren ingurutik soma zitekeen jarrera horretaz ezin dut testu zehatzik aurkeztu eta hor-hemenka azalduko agiri edo adierazpenetatik gidatu naiz.

etniko-kulturala landu du gehienbat eta, bestea, nazio politikoa, bazterturik geratu da oraintsura arte. Dena den, berriz gogoratu behar da definizio biok lurralde ikuspuntuaren barruan garatu direla ia soilik eta, ondorioz, biotan agertzen dela integrazio asmoa. Definizio etniko-kulturala elementu biri atxikitu zaie batik bat: arraza eta hizkuntzari. Beste lotura elementuak ez dira erabili gabe geratu, argi dago, baina osagarritzat jo behar ditugu erlijioa,<sup>12</sup> euskal kulturaren partaide eta transmisore izatea edo Euskal Herrian jaiotako eta errotutako familia bateko kide izatea. Arraza eta hizkuntza, ordea, teorizazio biren ardatz izan dira euskal nazionalismoaren historian. Lehenari loturik Arana bera (ik. 1980) doa, norentzat arraza euskal nazioaren diferentziaren funtsa baita, hura galduta nazioa ere galtzen zelarik. Bere jarraitzaile izan zirenak datoz ondoren. Azken hauen artean Engartzi Aranzadi, *Kizkitza*, aipa daiteke, Errepublikara arteko EAJ ofizialaren (1916tik aurrera Komunio izena hartu zuen) ideologoetako bat izan zen eta. Berarentzat, «el alma de la nacionalidad es la raza» (1931: 19) eta «toda organización de familias de una raza, que viven en territorio propio» nazioa eraikitzen du (ibid. 21). Teorizazio honen dibulgatzaile ezagunagoa Aita Ibero da: nazionalitatearen lehen ezaugarriak odola, arraza eta jatorria dira. Hizkuntza eta besteak ondoren datoz (1979: 547). Bestalde, «la Nación es indestructible, mientras subsista la raza» (ibid. 548). Arrazaren funtsezko kokapen honetaz Jose Arriandiaga, *Joala*, ere mintzatzen zaigu (Elorza, 1978: 332), Arana hil ondorengo independentziaren aldeko ideologo nagusia izan zena, alegia.

Definizio etniko-kulturalaren beste osagarri nagusia hizkuntza da. Bere iraupenagatik eta gaur egun elementu erabakigarria izaten jarraitzen duelako, euskal nazionalismoak bere nazio definiziorako erabili duen faktorerik inportanteena dela esan daiteke. Bere eragina nazionalismoa sortu aurretik nabari daiteke, XIX. mendeko foruzaletasunari loturik. Arrazan oinarritutako Aranaren definizioari Campionek hizkuntzari oinarriturikoa lot dakioko, baina ez zuen jarraipen praktikorik eduki; bai, ordea, teorikorik. Aranaren jarraitzaileengan eurengan hizkuntzalari ospetsu izan zen eta euskarari leku berezia eskaini zion Luis Eleizalde dugu, EAJ ofizialaren beste ideologoetako bat Kizkitzarekin batera. Eleizalderen ustez, nazioaren funtsa arrazan datza (1911: 70), baina hizkuntzari paper berezia eskaintzen dio (gero eta handiagoa denbora iragan ahala) eta arraza kontzeptua zentzu biologiko hutsetik banatu nahi du: hizkuntzak paper inportantea jokatzeko du barrukoa batzen eta kanpokotik desberdintzen (1919: 7). Hala ere, «no digo que el idioma propio sea en sí mismo el nexo nacional, no: el nexo nacional es, esencialmente, una comunidad de sangre, de remoto origen, de tradiciones fundamentales» (ibid. 8). Arraza esentzia da, hortaz, eta gero gaineko ezaugarriak daude, zeintzuetatik hizkuntza baita inportanteena, herri baten kultura mailaren adierazgarri onena delako (ibid.: 14).<sup>13</sup>

---

12. Erlijioak nazioa definitzeko funtsezko papera joka dezake zenbaitetan, erlijio hori beste batzuek inguratua badago batez ere, baina ez da hori Euskal Herriko kasua. Dena den, Aranak argudiatzen zuenez, euskal herritarren katolizismoa ingurukoena baino sakonago eta sentituagoa zen, euskal diferentziarako beste datu bat eskaintzen zuelarik. Hala ere, erlijio elementua gehiago dagokio nazionalismoari nazio definizioari baino: nazionalistaren ezaugarria da, ez Euskadi nazioa dela frogatzen duen elementua.

13. Hainbestearinoko eragina aitortzen dio hizkuntzari, ezen euskara falta den eskualdeetan eta pertsonengan endekapena nagusitzen baita, bere ustez, paisajeen bertan iger daitekeenez (Eleizalde 1919: 16).



Beste batzuk ere izango dira ildo horretatik abiatuko direnak, baina nazioaren ardatza hizkuntza delako argudioa II. Mundu Gerratik aurrera gorpuztuko da, arraza kontzeptua behin betiko lurperatu behar denean eta inmigrazio uhin berriak datozenean, erdibidetan ibili barik, ordura arte euskal nazionalismoak askotan egin bezala. Arraza utzi eta hizkuntza hobetsiko da, ofizialki, ordutik aurrera eta prozesu luze baten ondorioz. EAJren barruan, 1956an Franzisko Xabier Landaburuk publiko egiten du jarrera berri hau (Landaburu, 1977: 188), ordurako beste talde asko bide bera ere jorratzen hasiak direla. Berauen artean, *Ekin*-etik hasi eta ETArak daroan ildoak dugu. Erakunde bi hauen agiritan horrela erakusten da, baina teori-zaziorik sendoena Federiko Krutwigek ekarriko du, 1963an, *Vasconia* liburuarekin. Bertan, arrazismo kutsua oraindik dariola, euskal nazioaren ardatza hizkuntza dela adierazten du eta helburua euskara Euskal Herriko hizkuntza bakarra bihurtzea dela dio (Sarrailh de Ihartza 1979: 35).<sup>14</sup> Aurrerantzean, hizkuntza nazioaren elementu erabakigarria bihurtzen da nazionalista gehienentzat eta talde politiko desberdinek horrela onartzen dute, zabalkunde lana ezkerreko nazionalismoaren eskutik etorriko delarik batik bat. Adorez hartzen du euskararen funtsezko tasun planteamendu hau nazionalismo iraultzaileak (Apalategi 1985a: 178 hh.) eta 80ko hamarkadara arte berdin egingo dute alderdi guztiek.

Azken urteotan, gainera, zentzu praktikoagoa eman nahi izan zaio ideia honi eta euskarari lehentasun osoa eskaini behar zaiolako mezua zabaltzen ari da sektore euskaltzale batzuetan. Jarrera honen iturri edo motorea euskararen egoera gaitza da, beraien ustez, etorkizun iluna somatzen baitzaio zerbait egiten ez bada. Odriozolak (Hego Euskal Herrian) komunitate bi daudela defenditzen du, elkarren artean zerikusirik ez daukatenak, eta berak euskal komunitatearen aldeko apustua egiten du, bestea integratzea izan behar delarik helburua (1997). «Irtene bide estrategiko bakartzat euskarazko elebakartasun sozial-estrukturala» du (1993: 47). Euskara berreskuratzea jotzen da helburu nagusitzat gorpuzten ari den joera honetan, horretarako politikatik eta batez ere alderdi politikoetatik apur bat desmarkatu beharra ikusten delarik, populazio osoak errazago onartu ahal izateko euskaltasuna horrela.<sup>15</sup> Dena den, zaila da momentuz erabakitzea euskararen aldeko bultzada soilaren aurrean gauden ala zerbait eratuago bihurtzen den, hizkuntza nazionalismoa alegia. Azken ildo honetatik, agian, Sarasua dugu sartuago. Gorago esan dugu pertsona nazionalismo baterantzako urratsak izan zitezkeela berarenak, baina hizkuntza nazionalismo huts baterantzakoak ere izan litezke, Sarasuak uko egiten baitio lurraldean zentratutako nazio definizioari eta euskararen egindakoa hobesten baitu, aldiz (1997: 9-10). Berarentzat, euskal arima hizkuntzak gordetzen du eta, beraz, euskaltasunaren funtsa hizkuntza komunitateak osatzen du. Ez da argi geratzen, oster, beste hizkuntza komunitate biak

---

14. Krutwigen teorizazioa sendoa da, diogunez. Etnia kontzeptu zientifikoa eta objektiboa da eta nazioa, berriz, subjektiboa, sentimenduan oinarritua; nazioa, kontzientzia hartzen duen etnia da. Hortik abiatuta, eta euskal etnia objektiboki frogatu daitekeenez, euskal nazioaren eraikuntza proposatzen du, etnien –eta hortaz, hizkuntzan gehienbat– oinarritua, eta ez historian, eta kontzienteki berbaletia (Sarrailh de Ihartza 1979: XXIII hh.).

15. Foruzaleek Foruen berreskurapenaren inguruan bildu nahi zuten euskal gizartea eta hasierako nazionalismoak berdin egin nahi zuten euskal arraza edo nortasunaren inguruan, biek alderdi politikoetatik at jo nahiz, Euskararen Aldeko Mugimendu honek planteatzen omen duenaren antzera, hain zuzen ere (mugimendu honetaz, ikus, besteak beste, Larrinaga –1996–).

*euskal arimadunak* diren. Ez balira, hizkuntza nazionalismoaren aurrean geundeke, baldintza hori betetzen dutenak bakarrik izango bailirateke naziodunak.<sup>16</sup>

80ko hamarkadatik aurrera inportantzia berria hartu du nazioaren beste definizioak, politikoak, hasieran bazterturik geratua zela esan dugunak. Formulazioa, ordea, ez da berria, mende hasieratik badaukagu eta haren ordezkariak: Jesus Sarria. Arrazismoa eta arraza nazioaren funtsezko elementutzat jotzeari uko eginaz, hizkuntza hobetsi zuen euskalduntasunaren ardatz bezala, baina nazioa borondatean oinarrituz, bere kezka zen integrazioari ekiteko eta Mancinik hasitako bidea jarraituz. Mende hasierarako hain bakana zen joera honek orduko alderdie-tatik aldentzera eraman zuen (jarrera sozialagatik eta arrazaren paperagatik Komunitatik; eta independentzizalea ez zelako Aberri eta EAJ berritik) eta figura isolatu bezala geratu zaigu (ik. San Sebastian 1985). Hamarkada bi beranduago, 30ekoan, gorpuztu ahal izan zen definizio politikoa, Autonomiaren aldeko mugimenduarekin batera, baina II. Errepublikako autonomia laburrak, eta batez ere hain garai berezian lortuak, ez zuen horretarako aukerarik utzi. Une egokia izan zite-keen, ostera, Hego Euskal Herriko oraingo autonomiek erakusten duten bezala, administrazio ardurak hartzean herritartasuna naziotasunarekin parekatzeko joera izaten baita, definizio politikoa eginaz, integrazioa azkarrago lortuko dela uste delako agian.<sup>17</sup>

Izan ere, horixe gertatzen ari da Hego Euskal Herrian 80ko hamarkadatik hona, nahiz eta oraintsura arte teorizazio gutxi jaso duen. Gurrutxagak (1990; 1996) instituzionalizazio prozesuaren eraginak nazionalismoaren berfundazioa ekarri behar duela dio, pragmatismoan oinarritua eta frankismopeko teorizazioaren dramatizazioa baztertuz, belaunaldi berriek beste era batera ulertzen baitute nazionalismoa. Pragmatismoak aniztasuna onartzera daroa eta hori interpretazio etnikoan garaezina denez, aldaera politikoa eskuratu behar dela uste du. Arregik ere definizio hau hobesten du, gaur eguneko barne muga eta leizeak desager daitezten. Helburua integrazioa da, baina oraingo aniztasunetik abiatuta. Horrela egin behar da, esate baterako, euskararekin: hizkuntza aniztasuna onartu behar da lehen-lehenik; ondoren, eta hura bermatzeko, presioa kendu behar zaio eta, aldiz, berarekiko leialtasuna bultzatu, borondatean oinarrituta (1996: 80 eta 125). Hortxe dago, beraz, lotura puntua: aniztasuna onartu eta borondatea bultzatu.<sup>18</sup>

---

16. Horrek ez du esan nahi beste komunitateek (zentzu zabalean erabiltzen du Sarasuak kontzeptu hau) herritartasun eskubide legalik edukiko ez luketenik, lehenengo atalean azaldu denez, hemen nazio kontzeptua aztertzen ari baikara eta ez nazionalitate edo herritartasunarena, ezta integrazio asmorik dagoen ala ez. Esan gura du, ordea, eta nazionalismoari dagokionez, komunitate bat dela haren interesgunea, non-nahi bizi delarik eta lurralde mugez hainbeste kezkatu barik. Beste komunitateei jatorrikoa den honi integratzeko deia, eta desioa, luzatzen zaie.

17. Berrito gogoratuko dut nazioaren definizio etniko-kulturalean desberdindu egiten direla naziotasuna eta herritartasuna. Azken hau lurralde bateko biztanle orori onartzen zaio baldintza *administratibo* batzuk betetzearren. Posible litzateke, ostera, administrazio eskubideak edukitzea, baina nazioaren kide oso ez izatea (nazioaren hizkuntza, etnia edo dena delakoaren jabe ez izatearren). Nazioaren definizio politikoan, aitzitik, parekatu egiten dira naziotasuna eta herritartasuna.

18. Egia esan, Arregi EAEz ari da ia beti bere liburuan eta Gurrutxagak nahastu egiten ditu batzuetan lurralde markoak, hau ere gehienetan EAEz ari dela. Dena den, proposamen nazionalistatza hartu ditut biak, euskal gizartearen konpaktazioa eta nortasun propioa eta diferentziatua bilatzen dela iruditu zait eta. Arregik dioenez, helburua da "autoconstituirse como sociedad diferenciada" (1996: 122). Arazoa lurralde zehaztapenean datzat, baina proposatzen duten pragmatismoak eta errealismoak ez dituzte EAetik kanpoko egoeraz arduratzen uzten.

Jauregik eta Aierdik, azkenik, pertsona-lurralde nazionalismorantzako bidea ireki zezaketela esan dugu, baina momentuz bederen euren proposamenak lurralde nazionalismoan sartzen dira. Jauregik, adibidez, helburu bateratzaile argia erakusten du, beti borondatean oinarriturik: nazioa ezin da *ethnos*-ean finkatu, «sino en el *demos*, es decir, en la voluntad libremente expresada de los ciudadanos» (Jauregui 1996: 159; etzanak berarenak dira). Eta kulturaren ere nahi du batasun hori, ez bakarrik politikan: «En lo cultural, el mantenimiento y desarrollo de una *identidad común* pero plural» (ibid. 120; etzanak berarenak dira), hizkuntza bi edo hirutan funtsatua. Proposamen argiak, ikusten denez. Aierdik ere identitate kolektiboa landu nahi du, baina ez etnien oinarritua, ordainez definizio zibikoa edo politikoa hobesten duelarik (1996: 206 hh.).<sup>19</sup>

Hala ere, praktika politikoan nolabaiteko erreparoa ei dago gaia argitzeko eta eztabaidaezineko higadura igerri bada definizio honetarantz, teoriarik hizkuntzari atxikitzen zaio gehienetan (euskararen aldeko taldeek sarritan, eta arrazoiz, salatzen dutenez). Salbuespen bakarra, eta nabaria, desagertutako Euskadiko Ezkerra alderdia da. Gorago genioenez, pertsona ikuspuntuan urrats uzkur batzuk eman bazituen (ezkajinean emanak agian), definizio politikoaren aldeko apustu garbia egiten du. Bere azken Biltzar Nagusian, 1992an, honelaxe zioten: «frente a una concepción etnicista, esencialista o historicista, es decir reaccionaria de la nación, defendemos la nación como la expresión de la voluntad de autogobierno de los ciudadanos y ciudadanas democráticamente manifestada» (Euskadiko Ezkerra 1992).

Baina aurreko puntuan esan dugunez, definizio biak, politikoa eta etniko-kulturala, gainjarri egiten dira praktikan eta euskal nazionalismoan islapen argia dauka prozesu horrek, haren ibilbidea ezaugarritzen duten nazionalismo mota nagusien iturri baita. Definizio etniko-kulturaletik ateratako arraza eta hizkuntza, hortaz, definizio politikitik irteniko borondatea eta lurraldearekin batzen dira eta praktika luzeko teorizazioak ezartzen dira.

Arraza eta lurraldearen batuketa laster gertatu zen euskal nazionalismoan, mugimendu politiko bezala bideraezina baitzen arrazan bakarrik eginiko planteamentua. Gainera, erlijio zentzua hain barneraturik zeukan mugimendu batentzat ez zen gizalegezkoa inmigratuak Aranaren doktrinak iragartzen zuen bezain zakar tratatzea. Ez politikoa ez etikoa ez bazen, argi zegoen aldatu beharra zegoena eta joera hori, iritzi indibidualetatik at, EAJren gazteriak osatzen zuen Aberri taldearen eskutik hasi zen gorpuzten (Aberri buruz, ik. Elorza 1978: 385 hh.). Alderditik espulsatuak izan ondoren, EAJ bera berfundatu zuten 1921ean eta euren pertsonariak adierazgarriena Eli Gallastegi, *Gudari*, izan zen, zalantzarik gabe. Sabin Aranaren jarraitzaile sutsu, argi dauka arraza garbi mantentzea ezina dena aditu behar dela eta euskaldunaren jokabideak senidetasun eta maitasunezkoa izan behar duela, inmigratuari gutxien-gutxienik begirunea zor zaio eta (1993: IV. atala; ik. Lorenzo 1992). Baina joera hau nabariago egingo da hamarkada bat berandua-go, II. Errepublikarekin, Autonomi estatutuaren aldeko burruka hasten denean, legeria hura Hego Euskal Herriko biztanle guztiei ezartzeko zen eta (Estatutuaz, ik.

---

19. Ez dut uste pertsona nazionalismoan sar daitezkeenik proposamen hauek, jendearen arteko loturak estatutik edo administrazioetik harat eroan nahi dituzte eta, Jauregiren kasuan argi agertu denez. Ez dago hemen Habermasen *Konstituzioarekiko leialtasunik* bakarrik, kulturaren ere loturak eskatzen dira eta.

Estornes Zubizarreta 1990). Momentu honetan ari diren hiru talde nazionalistek nabarkiro batu dute lurralde kontzeptua arraza edo etniarenarekin. Horrela egin du 1930ean sorturiko EAE-ANV alderdi akonfesionalak, arrazismoaren aurkako azalduz (ik. de la Granja 1986: 605). Alderdi honetako militante den Juan Zuazok ematen digu batuketaren isla gardena: «Para nosotros es evidente que el derecho de nacionalidad se basa en la existencia de una raza, de un idioma, y de unas características; pero es igualmente innegable que quien llega a nuestra tierra no a esclavizarla, no a aniquilarla, no a destruirla, sino a trabajar en ella, ése es tan vasco como nosotros.»<sup>20</sup> Berdin egin du Aberriren ondorengotzat jo daitekeen Jagi-Jagi taldeak, EAJko gazteria kritikoak osatua eta alderdiarekin apurtuko duenak, arlo batzuetan arrazista agertzen bada ere, kanpokoari euskalduntzeko gomitea eginaz, integra dadin (ik. Elorza, 1978: 444 hh.). Eta berdin egin du, azkenik, EAJk berak, aipatzen ari garen joera honen jarrera eredu garria hartuz: Tolosan Urtarrilaren 29an egindako 1933ko Asanbladan, alboratu egiten da afiliatua izateko gutxienez abizen euskaldun bat (lehen lauetatik) eduki behar zelako araua eta Euskal Herrian hamar urtetan finkatua izatea nahikoa zela ezartzen da (EAJ 1985: 149). Hau da, eskakizun etniko batetik, abizena, politiko batera iragaten da, lurraldean bizi izatea. Beobidek (1993) dioenez, sinbolikoki eta ideologikoki arrazak izan zuen nagusitasuna, baina eguneroko bizitzan beste baldintza batzuk gailendu ziren.

Arraza eta lurraldearen batuketa hori gainbeheraka dabil, oster, 40ko hamarkadan. Arraza hizkuntzak ordezkutzen zuela ikusi dugun modu berebean, kontzeptu etniko eta politikoen arteko batuketan hizkuntza da 50eko hamarkadatik aurrera lurraldearekin bat egiten dena, fruitu ugari eta iraupen handikoak eman dituen batasun berria osatuz. Arrazarekin gertatzen zen bezala, batuketa izkutua da, agirian hizkuntza geratzen baita, paper sinbolikoa beteaz, baina lurraldearen eragina ezin da ostendu, bere bidez populazio osoari zabaldu nahi zaiolarik mezu nazionalista (ik. Zabalo 1996: 152). Ez da egia, beraz, euskal nazionalismoak Euskal Herri barruko diferentziaziorik bilatzen duenik euskararen bidez, Heibergek dioenez.<sup>21</sup> Diferentziazioa bilatzen jarraitzen du kanpoko lurraldeekiko, Espainia eta Frantziarekiko batez ere, hasiera-hasieratik egiten zuen bezala (nazionalismo orok ohi duenez), baina ez du banaketarik sortu nahi euskal herritarren artean, euskaldun huts eta etorkinen artean adibidez, aipaturiko kritikak adieraztera ematen duenez. Aitzitik, euskara lurralde osora hedatu gura da eta biztanle guztiek ikas dezatela aldarrikatu. Aldaketa honetan oinarriturik, euskal nazionalismoak ahalegin berri eta berezia egiten du ordura arte gutxi jorratutako eskualdeetara zabaltzeko. Zentzurik ez leukake zabaltze politika honek euskararen bidez diferentziazioa bilatuko balitz, inmigrazio handiko edo erdara nagusi den eskualdeetan aritzen baita. Eta ez da egia, beste aldetik, euskara zabaltzea zenik helburu nagusia, hizkuntza nazionalismo batek beharko lukeenez, euskararen berreskurapena ez baita izan nazionalista berrien kopuruaren adinakoa.

---

20. Juan de Zuazo: "Antecedentes del nacionalismo", *Tierra Vasca*, 1933-6-25 (aipatua in Apalategi 1985b: 126).

21. Heibergeren ustez, hizkuntzak eta kulturak gaur eguneko euskal nazionalismoan betetzen duten papera, mende hasierakoan arrazak betetzen zuen hura bera da, hots, euskal herritar / anti-euskal herritarren arteko banaketa markatzea (1991: 163).

Hizkuntza eta lurraldearen batuketa honetan nazioaren eraikipen globala bilatzen da eta euskarak nazio identifikazioan laguntzen du, baina identifikazioa berarekiko atxikimendu edo leialtasunaren bidez frogatu daiteke eta ez, halabeharrez, ikasiz eta erabiliz (Recalde 1982: 349-350).<sup>22</sup> Hizkuntzak identifikazio sinbolikoa eta lurraldeak identifikazio praktikoa ordezkatzeko duteneko iritzi edo suposizioaren frogatu euskal herritarrek eurek ematen dute, euskal herritartasuna zertan datzan galdetuz, gehienek *bertan bizi eta lan egitean* erantzuten *baitute, familia bertakoa izatearen* gaitetik eta, diferentzia handiz, *hizkuntzaren* gaitetik ere.<sup>23</sup> Ez gaude, ordea, nazionalismo politiko huts baten aurrean –lurraldean oinarritua–, komunitatearekiko leialtasuna erakusteko, etniko-kulturala den ezaugarri batekiko atxikimendua eskatzen baita, eta euskara paper hori betetzera dator. Eta ondo bete ere, hizkuntzarekiko leialtasuna motore handia baita Euskal Herrian eta bere alde aktibismo militante ukazinekoa ageri baita. Baina ez gaude, bestalde, hizkuntza nazionalismoaren aurrean, beronek euskal komunitatean zentratzen baititu bere ahaleginak eta hemen, berriz, errebindikatuak lurralde osoa hartzen da abiapuntutzat eta bertan euskara sustatzeko beharrezko ikusten dira neurri politikoak, gehienetan euskal estatuaren eraikipenarekin identifikatzen direnak. Iritzi horretakoa da, adibidez, Iztueta, norentzat «Hizkuntzarekin batera, proiektu nazional osoa dator, hor barruan beste gizarte-arazo guztiak daudela, elkar-kontraesanean eta elkarri mugatuz» (1993: 53-54). Euskara politizatzearen alde dago, beraz, «hizkuntz arazoa, funtsean, Estatu-arazoa dela» uste du eta (ibid. 51). Horrexegatik deritza hain inportantea euskal estatua erdiesteari, helburu hori betetzeko lurralde irizpidea baita egokiena (ibid. 55).

Esan dugunez, hizkuntza eta lurraldearen batuketa arrakasta handikoa izan da Euskal Herrian eta zail egiten du bere osagai biak bakarrean garatzea. Hizkuntza nazionalismoak inoiz ez du teorizazio sendorik eduki eta nazionalismo politikoa *lar hotza* iruditzen omen zaio euskal herritarri. Horrela, gobernu ardurak direla eta, alderdi nazionalistek nazionalismo politiko horretarantzako bilakaera hasi dutenean, euren militanteen kritikak jaso dituzte sarritan, euskarari jaramon gutxiegi egitea egozten diete eta. Tejerinak frogatu ahal izan zuenez, alderdi nazionalista moderatuen aldekoen iritzia erradikalagoa zen alderdi horiek garatzen duten jokabidea baino eta, baita ere, aldarrikatzen dutena baino (1992: 342). Euskal nazionalistek gogoz hartu dute hizkuntza eta lurraldearen batuketa hau eta berak markatu du euskal nazionalismoaren ildoak azken hamarkadotan alderdi guztientzat. Nabaria da joera hau EA eta EAJri dagokienez, baina berdin esan dezakegu nazio edukietan erradikalago ageri den HBri dagokionez edo ezkerreko gainerako alderdiez. Euskal Herriko hizkuntza bakarria euskara dela eta berau


---

22. Aspalditik dator ideia hau, Elizalde euskara ikasteko gogoak zegoela baitzioen, baina, bere ustez, azpimarragarria «No tanto está en conocer el Euskera, como en el *deseo* de conocerlo y de poseerlo; en esto, como en otras cosas, lo principal radica en la intención». (1911: 63; etzana berarena da).

23. *Euskal herritarrek*, orokorrean, erabili dut, kopuruz horrelaxe zelako, baina, Iparraldean ez zen horrela sentitzen inkesta egin zen denboran, 1979an, eta *familia bertakoa* izatea hobesten zen, *hizkuntza* eta *bertan bizi eta lan egitea* zetoze ondoren; baina euren arteko diferentziak ez ziren hain handiak (ik. Linz 1985: 221; 1986: 32, 378 eta 414). Talde nazionalistak mugimendu politiko sendoa osatu ahala definizio politikoa nagusitzen da, Hego Euskal Herrian bezala; bestela, definizio etniko-kulturalak jarraitzen du (ik. Linz 1985: 206).

desagertuko balitz Euskadi nazio bezala desagertuko litzatekeelako argudioak<sup>24</sup> azken helburuak dira euskal alderdi nazionalistentzat, euren praktikan ez baitute diskriminaziorik egiten euskaldun –euskaraz mintzatzen– ez direnekin.

Honaino euskal nazionalismoak euskal nazioaren eraikuntzarako funtsezkotzat jotzen dituen osagaien aurkezpena. Lau dira, ikusienez: pertsona, arraza, hizkuntza eta lurraldea. Baina oso eragin desberdina daukate (pertsonak eragin teoriko hutsa, esate baterako) eta askotan nahasturik datoz. Hemendik, hurrengo puntuan aurkeztuko ditugun sei nazionalismo mota sortzen dira Euskal Herrian, aurreko atalean hasi dugun hurbilketa teorikoa burutuz horrela (ik. 2. grafikoa)<sup>25</sup>.



### 3. Euskal nazionalismoaren tipologia nazioari emaniko jitearen arabera

Euskal Herriko nazionalistek Euskadiri buruz gogoeta egitean euskal nazioa zertan datzan eta beronen funtsa zein elementuk osatzen duen abiapuntu harturik, sei nazionalismo mota desberdin ditzakegu.

24. Mezu hauek sarritan errepikatzen dira. Adibide bakartzat, ikus HB 1992: 36.

25. Grafikoa azalpena: 1). 1. grafikoa bezala. 2). 1. grafikoa bezala. 3). 1. grafikoa bezala. 4). Definizio etniko-kulturealean arraza eta hizkuntza dira nazioaren auzerak diren elementu nagusiak Euskal Herrian. Definizio politikoa, lurraldea eta borondatea. Hala ere, ugariak dira definizio biek arteko loturak eta askotan baturik ageri dira. Azkenik, elementu hauek guztiak pertsona ikuspuntuarekin ere bat daitezke, batuketak jite berezia hartzen duelarik. 5). Aurreko elementuetatik edo elementu batuketatik sei nazionalismo mota ageri dira Euskal Herrian.

### 3.1. Arraza nazionalismoa

Definizio etniko-kulturaletik zuzenean etorrita, nazioaren elementu nagusia arraza dela pentsatzen da. Euskal arrazaren ezaugarriak ezarri ondoren, naziotasuna haren arabera erabakitzen da eta multzo nabari eta mugigaitz bi ageri dira bertatik, euskal jatorrikoak direnak eta ez direnak. Nazionalismoak albo batera uzten du bigarren multzoa eta lehenengoan zentratzen da, bere kideek bakarrik salba eta eraiki baitezakete euskal nazioa. Euskal nazionalismoan egin zen lehenengo proposamena da hau, Sabin Aranek formulatua, eta bizitza praktikoa laburra eduki zuen, baldintza politikoek argudioak baretzera eraman zuten eta. Hala ere, kontzeptualizazioa osorik iragan zen arraza-lurralde nazionalismora, betebeharraren sinbolikoa gorderik. Arana hil ondoren, baztertuz joan zen arraza nazionalismoa eta hondar-adar gisa garatu zen gerrara arte. Bere defenditzaleen artean Luis Arana, Aingeru Zabala edo Jose Arriandiaga, *Joala*, aipa daitezke, denak Sabinen garaikide eta laguntzaileak.

### 3.2. Arraza-lurralde nazionalismoa

Definizio etniko-kultural eta politikoaren arteko batuketatik sortua: nazioaren elementu nagusia arraza da maila teorikoan, baina praktika Euskal Herriko errealitate biologikoak markatzen du, zeinean euskal arraza deiturikoa ez baita bakarra eta euskal lurraldean bizi den orori zabaltzen zaio naziokide izendatzeko aukera. Diferentzia nagusia euskal lurraldea / erdal lurraldea binomioak azaltzen du. Integrazio ahalegina igertzen da, bere gauzapena era askotara eta abiapuntu desberdinetatik proposatuko bada ere. Mende hasieratik nagusitu zen bidea da eta bere hegemonia gerrara arte heldu zen. Bere bidez, autonomiaren aldeko mezua zabaldu zen 1910 eta 1930eko hamarkadetan EAJ (Komunioa 1916tik aurrera, lehen kanpainan; eta EAJ bateratua Errepublikara garaian) eta EAE-ANVren eskutik (azken alderdi hau autonomiaren aldeko bigarren kanpainan bakarrik) batez ere. Independentziaren aldeko mezua ere bideratu zuen ikuskera honek, Aberri taldea, EAJ (1921ean berfundatua) eta Jagi-Jagi taldeen eskutik, Eli Gallastegi delarik kasu guztietan figurarik nabarmenena.

### 3.3. Hizkuntza nazionalismoa

Definizio etniko-kulturaletik zuzenean datorren bigarren adarra: hizkuntza hartzen da nazioaren funtsezko elementutzat. Euskara da euskal herritarren ezaugarri nazional nagusia eta euskaldun / erdaldun diferentziazioa bultzatzen da. Euskara erabiltzea, edo ez dakienak ikastea, bihurtzen da nazionalistaren lehen betebeharraren, derrigorrezko eskakizuna baita naziokide izan ahal izateko. Atzeman daitekeen tasuna denez, itxarotekoa da nazionalismo honek ekite politika sendoa egitea euskal herritar guztiek euskara ikas dezaten, arraza nazionalismoarekin aldatuta nabaria eskainiz. Hala ere, esaniko guztia ez da orain arte errealitatean gertatu, zeren hizkuntza 50eko hamarkadan nazionalismo berriaren ardatz bihurtu bazen ere, definizio politikoari loturik joan da ordutik eta ez da modalitate honetan mugimendu bezala aurkeztu (jarrera pertsonalak egon ahal izan badira ere). Aukera teoriko honek, ostera, gorpuzteko probabilitateak handitu ditu azken urteotan, orain arte loturik joan deneko definizio politikoetik aldentzeko ekimenak suma daitezke

eta. Edozein modutan ere, gaur egun ez dago oraindik nazionalismo mota hau errebindikatzen duen talde politikorik.

### **3.4. Hizkuntza-lurralde nazionalismoa**

Definizio etniko-kultural eta politikoaren arteko batuketatik sorturiko bigarren aldaera: nazioaren elementu nagusia hizkuntza da maila teorikoan, baina praktika Euskal Herriko errealitate soziologikoak markatzen du, zeinean Euskal Herriko jatorrizko hizkuntza ezezik, beste bi ere mintzatzen baitira. Hori dela eta, euskara ez da euskal herritartasuna erabakitzen duena eta betebeharrak hori lurraldeak garatzen du, euskal lurraldean bizi den orori euskal herritarra izateko aukera aitorzen zaiolarik, erdal lurraldeari kontraposaturik. Aurrekoak, hizkuntza nazionalismoak, Euskal Herriko erdaldunekiko eduki lezakeen zentzu baztertzaila, gehiago ezabatzen du mota honek, lurraldeari garrantzi handiagoa emanaz. Mendearen erdi aldera sortua, arraza-lurralde nazionalismoaren alternatiba bezala, ikuskera hegemonikoa izan zen nazionalismoaren barruan eta oraindik ez du galdu lehentasun hori, zalantzak eta eztabaidak ugalduz badoaz ere. Autonomia eta independentziaren aldeko korranteak izan ditu, bestalde. Lehenaren eskutik Hego Euskal Herriko autonomi proiektua bultzatu zen, nahiz eta azkenean proiektu bi irten handik, EAE eta Nafarroarako, hain zuzen ere. Bigarrenaren eskutik, berriz, autodeterminazio eta independentzia kontsignak bizirik irautea etorri da.

### **3.5. Lurralde nazionalismoa**

Definizio politikotik datorren adarra da hau. Nazioa gizabanakoen arteko kontratu gisara ulertzen denez, lurralde hori betetzen duten guztiak dira naziokide. Euskal herritarrak, hortaz, Euskal Herrian bizi direnak dira, salbuespenak salbuespen (gero eta ugariagoak herri pobreetako inmigrazioarekin). Ez dago beste eskakizunik: lurraldean bizitzea eta nazioa eraikitzeke borondatea adieraztea. Diferentziazioa erdal lurraldearekiko egiten da eta, beraz, eskusio zentzu guztiak baztertzen dira barrura begira. Teorikoki mende hasieran formulatua, Errepublikara garaian hurbiltze uzkurra izan zen Autonomi Estatutuarekin, baina 80ko hamarkadan gertatu da bere benetako azalarazpena, beharturik nolabait, EAEko eta Nafarroako autonomi prozesuak garatuz joan direnetik. Etorkizunera begira protagonismo handiagoa har dezakeen nazionalismo mota da, EAJren eskutik batik bat, baina baita beste alderdietatik ere.

### **3.6. Pertsona-lurralde nazionalismoa**

Pertsona ikuspuntutik datorren adarra lurralde ikuspuntutik datorren definizio politikoarekin batzen da hemen: gizabanakoaren borondatea eta bere aukera pertsonala dira naziorako elementu nagusiak. Lehenengoari kutsu politikoa kentzen zaio, baina bigarrenari integrazio asmoari uko egitea ezabatzen zaio eta, ondorioz, nortasun batua eraikitzeke eta sendotzeke gogoia ere ageri da. Euskal Herriko kasuan, hizkuntza eta kultur desberdintasunak bermatuko liriteke, baina gainera euskal nortasun bat eraikitzeke itzuri egin gabe. Praktikan, beraz, badirudi Euskal Herrian bizitzea dela euskal herritartasuna erabakitzen duena, erdal lurraldeari kontraposaturik. Nazio gaiari tentsio politikoa kendu gura zaio, naziotasuna arlo pribatura iragan nahi baita. Zerbait berria eraiki gura da, hortaz,



nahiz eta euskal subjektu kolektiboaren nortasuna gorde gura den. Maila teorikoan planteatzen den aukera hau, ordea, ez du momentuz ezein talde politikok errebindikatzen eta etorkizunerako hipotesien mailan utzi behar da.

#### 4. Bilketa eta azken oharrak

Nazioa ulertzeko moduaren arabera aztertu eta sailkatu dugu euskal nazionalismoa, baina ez da azterketa eta sailkapen mota bakarra, jakina. Euskal nazionalismoan beste hiru sailkapen erabiltzen dira gehien: 1. Alderdi nazionalistaren ideologiari dagokiona eta, oro har, kristaudemokrata, sozialdemokrata eta sozialista izan daitekeena gaur egun. 2. Alderdi nazionalistaren jite politikoari (moderatua / erradikala; sistema / anti-sistema) dagokiona. 3. Nazionalistaren azken helburu politikoari dagokiona, autonomia ala independentzia, alegia. Azken kasu honetan, lanean zehar aurkeztu den sailkapenean bezala, hobe nazionalistaz pertsona gisara aritzea eta ez alderdiaz, oso zaila baita identifikazio osoa lortzea alderdia eta nazionalismo motaren artean.

Sailkapen bakoitza ezgauza da nazionalismoaren konplexutasuna bere osoan azaltzeko eta komenigarria da, hortaz, bat baino gehiago erabiltzea asmo horretarako. Adibidez, azken helburu politikoaren arabera egiten den sailkapenak informazio gutxi ematen digu nazionalistaren soslaiaz edo nazioari buruzko ikuskeraz. Hala ere, autonomia / independentzia eztabaidak euskal nazionalismoaren ibilbidea markatu du eta diferentzia sakonak sortarazi ditu nazionalisten artean, beste sailkapen batzuetan atzematen ez direnak, hemen garatu dudak hau barne. Izan ere, arraza-lurralde edo hizkuntza-lurralde izendatu ditudan nazionalismoetan ebaketa sakona (baina ez gardena) dago helburu autonomizale eta independentzizalea eraman dutenen artean.

Kontuan hartzeko beste faktore bat: herrialdeka eta eskualdeka nabaritzen den nazionalismoaren garapen desberdina. Faktore honek, nazionalismoaren beraren indarrean eragin ezezik, aldaketa kualitatiboagoak ere azaltzen ditu, euretako ezagunenena nazionalismo moderatua eta erradikalaren hedapen desberdina. Gure sailkapen honetan ere iger daiteke faktore hau. Esate baterako, arraza kontzeptua hizkuntza kontzeptua baino lehenago erabili zenez, tradizioz zaharreneko lurraldeetan arraza nazionalismoaren aztarnak soma daitezke oraindik, Bizkaian eta Gipuzkoan alegia, eta batez ere lehenengo herrialdean. Hizkuntza nazionalismoak, bestalde, arrakasta handiagoa lor lezake euskara oraindik mintzatua den lurraldean eta bertan jasoko ditu kritika gehienak hizkuntza-lurralde nazionalismoak.

Aurreko guztia kontuan harturik, lanean zehar sei nazionalismo mota ikusi dira, beraietatik bi teoria mailan planteatuak, hizkuntza eta pertsona-lurralde nazionalismoak. Beste bi gaireratik daude historikoki, arraza eta arraza-lurralde nazionalismoak. Beste biak dira gaur egun nagusiak, hizkuntza-lurralde eta lurralde nazionalismoak, lehena batez ere, bigarrena gorantz ari delarik. Ikusten denez, posible da momentu baten mota bat baino gehiago agertzea. Hala ere, bi izan dira hegemonikoak historian zehar: arraza-lurralde eta hizkuntza-lurralde nazionalismoak, 50eko hamarkadara arte lehena eta ordutik hona bigarrena.

Lan honen helburua sailkapenaren aurkezpena bera zen, baina amaitu aurretik agerian geratzen diren ondorio bi, eta bertatik eguneroko praktika politikoan eragin dezaketen inplikazio bi, apuntatuko ditut.

Lehena, orokorrean eta Euskal Herrian ere bai, nazionalismo desberdinak agertzen diren bezala, nazioaren ikuskera ere askotarikoa izan daitekeela eta horrela gertatzen dela euskal nazionalismoan. Beste modu –gordinago– batez esateko: nazionalista guztiek ez dute nazioa era berean ulertzen; ez dute nazio bera sentitzen. Hizkuntza nazioaren ardatz gisa hartzen duenak sentsibilizazio handiagoa duke gai horrekiko lurraldea hobesten duenak baino; azken honek, berriz, orokortasunari begiratuko dio lehenik, elkarbizitzari, gizabanakoaren eskubide partikularrari. Eta beste modu batera ulertuko dute beste aukerek. Erraza da ondorioztatzea nazionalismoaren adar desberdinek lan mardula dutela aurrean gutxienezko akordioetara heldu nahi badute, diferentziak sakonak izan daitezke eta. Ez da bitarte politikoaren arazoa bakarrik, ez da batzuek azkarrago eta besteek geldoago eta ziurrago joan nahi dutela, ez da borroka armatuak banatzen dituela... batzuetan nazionalistak banatzen dituen nazioa bera, Euskadi, da, batzuek hona eta besteek hara gura dute eta. Hala ere, kontuz, honekin ez baitut esan nahi diferentziok salbaezinak direnik. Euskadi da, nazioa, era berean batzen dituen, denek hartzen baitute hura nazio markotzat eta ez Espainia edo Frantzia.

Bigarren ondorioa da, sailkaketan ikusi denez, euskal nazionalismoaren historian aldaera politikorantzako bilakaera igertzen dela. Horrela, arraza-lurralde eta hizkuntza-lurralde motak arraza eta hizkuntza motei gailendu zitzaizkien. Lurralde nazionalismoa, bestalde, inportantzia hartzen ari da azken urteotan. Gorago esan denez, mugimendua gorpuztu ahala, ezaugarri etniko-kulturalak baretu eta politikoetara jo izaten da. Eta momentu honetan bilakaera horren gailurrera heldu da agian. Baina, paradoxa bada ere (edo horrexegatik beharbada), politizatuen dagoen unean alderantzizko ibilbidea egin dezala eskatzen hasi zaio orain (hizkuntza eta pertsona nazionalismoak ildo horretatik abia litezke, gauzatzekotan), politizazio horrek aurkaketak eta tirabirak baino ez baititu sortzen gizartearen. Balore sozialak berreskuratu nahi dira, hain zuzen ere, baina gizarteak berak kudeatuak eta ez politikaren eta politikoaren bahetik iragazirik. Hurrengo urteotan eztabaida interesgarriak piztuko bide dira gai horretatik abiatuturik, nazionalismoaren gerorako berebiziko inportantzia duen arazoa da eta.

## Aipamenak

- Acosta Sánchez, J., ( 1992): “Los presupuestos teóricos del nacionalismo y el nuevo ciclo del fenómeno”, *Revista de Estudios Políticos (Nueva Epoca)*, 77, Uztaila-Iraila, 95-138.
- Aierdi Urraza, X., (1996): “Nazionalismoaren egungo zenbait arazo”, *Inguruak*, 15, Uztaila, 203-222.
- Alvarez Dorronsoro, I., (1993): *Diversidad y conflicto nacional*, Talasa ed., Madril.
- Anderson, B., (1993): *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko (1. arg. ingelesez 1983an; itzulpen hau 1991koa den 2. argitalpenarena da).
- Apalategi, J., (1985a): *Los vascos de la autonomía a la independencia. Formación y desarrollo del concepto de la nación vasca*, Ed. Txertoa, Donostia.

- , (1985b): “Origen y desarrollo de los discursos alusivos a los elementos constitucionales de la especificidad vasca o en torno al concepto de la nación vasca. Siglos XVIII, XIX, XX.” in Herria 2000 Eliza, *Autodeterminación de los pueblos. Un reto para Euskadi y Europa*, Herria 2000 Eliza, Bilbo, 101-137, II. liburukia.
- Arana-Goiri'tar, S., (1980): *Obras completas de*, Sendoa arg., Donostia (2. arg.).
- Aranzadi Etxeberria, E. de, [Kizkitza], (1931): *La Nación Vasca*, E. Verdes Achirica, Bilbo (2. arg.; lehen 1918an).
- Arregi, J., (1996): *Euskadi invertebrada*, Ediciones Oria, Alegia.
- Bauer, O., (1979): *La cuestión de las nacionalidades y la socialdemocracia*, Siglo XXI, Mexiko (1 arg. alemanez 1907an).
- Beobide Ezpeleta, I. M., (1993): “Nacionalismo vasco: nación y poder”, *Estudios de Deusto*, 41: 1, 9-98.
- Busquets, J., (1971): *Introducción a la sociología de las nacionalidades*, Ed. Cuadernos para el Diálogo, Madril.
- EAJ-PNV, Euzko Alderdi Jeltzalea - Partido Nacionalista Vasco, (1985): *La organización del Partido Nacionalista Vasco. Estatutos y reglamentos internos a lo largo de su historia. Euzko Alderdi Jeltzalea'ren antolamendua. Bere kondaira zeharreko estatutu eta barne araudiak*, Alderdi ed., Bilbo.
- EE, Euskadiko Ezkerra, (1992): “Hemendik - V. Biltzar Nagusia”, *Hemendik*, X: 103, Urtarrila.
- Eleizalde, L. de, (1911 ): *Raza, lengua y nación vasca*, Ed. Elexpuru, Bilbo.
- , (1919): *La lucha por el idioma propio*, Bilbaína de Artes Gráficas, Bilbo.
- Elorza, A., (1978): *Ideologías del nacionalismo vasco 1876-1937 (de los “euskaros” a Jagi Jagi)*, L. Haranburu, Donostia.
- Estornes Zubizarreta, I., (1990): *La construcción de una nacionalidad vasca. El autonomismo de Eusko-Ikaskuntza (1918-1931)*, Eusko Ikaskuntza (Cuadernos de sección. Historia-Geografía 14), Donostia.
- Gallastegi, E., [Gudari], (1993): *Por la libertad vasca*, Txalaparta, Tafalla.
- Gellner, E., (1988): *Naciones y nacionalismo*, Alianza ed., Madril (1. arg. ingelesez 1983an).
- Granja Sainz, J. L. de la, (1986): *Nacionalismo y II República en el País Vasco. Estatutos de autonomía, partidos y elecciones. Historia de Acción Nacionalista Vasca*, CIS - Siglo XXI, Madril.
- Gurrutxaga, A., (1990): *La refundación del nacionalismo vasco*, Servicio Editorial UPV, Bilbo.
- , (1996): *La transformación del nacionalismo vasco*, R & B Ediciones, Donostia.
- Habermas, J., (1989): *Identidades nacionales y postnacionales*, Editorial Tecnos, Madril (1. arg. alemanez 1987 eta 1988an).
- , (1992): “Ciudadanía e identidad nacional. Consideraciones sobre el futuro europeo”, *Debats*, 39, Martxo, 11-18.
- Hall, J. A., (1993): “Nacionalismos: clasificación y explicación”, *Debats*, 46, Abendua, 89-102. (Lehenengoz ingelesez argitaratua urte berean).
- Haupt, G. & Weill, C., (1982): “Marx y Engels frente al problema de las naciones”, in Haupt & Löwy & Weill (zuz.), *Los marxistas y la cuestión nacional. La historia del problema y el problema de la historia*, Ed. Fontamara, Bartzelona (2. arg., lehenak 1978 eta 1980koak dira), 117-172.
- HB, Herri Batasuna, (1992): *Batasunean gorantz. Hacia un proyecto común de los abertzales y de la izquierda (Ez dakar argitarapenari buruzko argibiderik)*.
- Heiberg, M., (1991): *La formación de la nación vasca*, Arias Montano Editores, Madril (1. arg. ingelesez).
- Herranz de Rafael, G., (1992) : *La vigencia del nacionalismo*, CIS-Siglo XXI, Madril.
- Ibero, P. Evangelista, (1979): “Ami Vasco”, in Sarrailh de Ihartza, Fernando, *La nueva Vasconia*, Ed. Vascas, Donostia (lehen argitalpena 1906koa da), 547-577.

- Iztueta, P., (1993): "Hizkuntza eta boterea", *Bat*, 9, 45-55.
- Jauregui, G., (1996): *Entre la tragedia y la esperanza. Vasconia ante el nuevo milenio*, Editorial Ariel, Bartzelona.
- Landaburu, F. J. de, (1977): *La causa del Pueblo Vasco (Razones de una actitud. Posibilidades de actuación)*, GEU argitaldaria, Bilbo (3. arg.; lehen 1956an).
- Larrinaga, A., (1996): "Diskursoaren interpretazio markoak", *Inguruak*, 15, Uztaila, 155-178.
- Linz, J. J., (1985): "From Primordialism to Nationalism", in Tiryakian / Rogowsky (zuz.), *New Nationalisms of the Developed West*, Allen and Unwin, Boston 203-253.
- , (1987): *La quiebra de las democracias*, Alianza Editorial, Madril (1. arg. ingelesez 1978an).
- , [Manuel Gómez-Reino, Francisco Andrés Orizo eta Darío Vilaren laguntzaz]. (1986): *Conflicto en Euskadi*, Espasa-Calpe, Madril.
- Lorenzo Espinosa, J.M., (1992): *Gudari: una pasión útil. Vida y obra de Eli Gallastegi (1892-1974)*, Txalaparta ed., Tafalla
- Mancini, P. S., (1985): *Sobre la Nacionalidad*, Ed. Tecnos, Madril (1. arg. 1851 ea 1852an).
- Nin, A., (1977): *Los movimientos de emancipación nacional*, Ed. Fontamara, Bartzelona (2. arg.; jatorrikoa katalanez 1935ean).
- Odroizola, J. M., (1993): *Soziolinguistikaren atarian*, Euskaltzaindia-BBK, Bilbo.
- , (1997): "Ezkutatu zaiguna", *Egin*, Martxoak 3: 8.
- Recalde, J.R., (1982): *La construcción de las naciones*, Siglo XXI, Madril.
- Renan, E., (1987): *¿Qué es una nación? Cartas a Strauss*, Alianza Editorial, Madril (Lehen lana 1882an emaniko hiltzaldia da).
- Renaut, A., (1993): "Lógicas de la nación", in Delannoi & Taguieff (zuz.), *Teorías del nacionalismo*, Ed. Paidós, Bartzelona (11. arg. frantsesez urte berean), 37-62.
- San Sebastian, K., (1985): *Jesús de Sarría: nacionalismo y heterodoxia*, Ediciones Alderdi, Bilbo.
- Sarasua, J., (1997): "Aitaren etxea eta amaren sua", Bilbo: IV. Jardunaldi pedagogikoak. Bakegintzarako hezkuntza, Ikastolen Elkarteak eta Elkarrik antolatua (argitaragabea).
- Sarrailh de Ihartza, F., (1979): *La nueva Vasconia*, Ed. Vascas, Donostia (Barruan *Vasconia* berrargitaratzen da; lehen arg. 1963koa).
- Sieyes, E., (1989): *¿Qué es el Tercer Estado? Ensayo sobre los privilegios*, Alianza Editorial, Madril (1. arg. frantsesez 1789an.)
- Smith, A. D., (1976): *Las teorías del nacionalismo*, Ediciones Península, Bartzelona (1. arg. ingelesez 1971n).
- , (1991): *National Identity*, Penguin Books, Londres.
- Tejerina Montaña, B., (1992): *Nacionalismo y lengua. Los procesos de cambio lingüístico en el País Vasco*, CIS - Siglo XXI, Madril.
- Zabalo, J., (1996): *Euskal nazionalismoa eta nazio lurraldea*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.